

2024-12-12

PRENTSA-TXOSTENA

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN JAIAREN 32. EDIZIOAREN AURKEZPENA

Gaur aurkeztu dugu prentsurrean 2025eko ekainaren 1ean Urduñan (Bizkaia) egingo dugun Euskal Eskola Publikoaren 32. Jaia. Prentsurrekoan parte hartu dute Eba Colomino eta Javi Ortegak (eskolako gurasoa eta guraso ohia), Uxue Mendibilek (Hezkuntza zinegotziak) eta Lurdes Imaz EHIGEko koordinatzaileak. Bertan egon dira ere eskolako zuzendari, irakasle eta ikasleak eta Aiaraldeko eskola publikoetako IGE eta zuzendaritzen ordezkariak.

Euskal Eskola Publikoaren Jaia, eskola publikoa euskal hezkuntza-sistemaren ardatza izan dadin aldarrikatzea helburu duen eguna da eta urtero ospatzen da ekaineko aurreneko igandean 1994. urteaz geroztik.

Euskal Eskola Publikoaren komunitatea osatzen dugun milaka lagunen topagune izatearekin batera, eskola publikoa ahalduntzea du helburu egun honek. Honekin batera, bereak dituen ezaugarriak gizarteratzeko egun aproposa bihurtu da egun hau: publikoa den heinean denona eta denontzako, euskara eta euskal kultura sustatzailea, herrian txertatua, hezkuntza-komunitatearen parte-hartzean oinarritua eta berritzailea.

Ordiziaren lekukoa hartuta, indarrez dator Euskal Eskola Publikoaren 32. Jaia Urduñara.

LELOA ETA IRUDIA

Lurra, herria, eskola ERROTU da Euskal Eskola Publikoaren 32. Jaiaren leloa. **Lelo honen bidez lurrean eta herrian txertatua dagoen hezkuntza-eredu publikoa aldarrikatu nahi dugu.**

- (LURRA) **Elikadura erdigunean ipintzen duen eskola.** Hainbat urteetako lanaren ondorioz, 2018-2019 ikasturtean martxan jarri zen Orduñako eskola-jantokiaren proiektu pilotua. Ordutik, erreferente izan dira elikadura burujabetzaren arloan Estatu mailan. Honekin batera, patioa eraberritu dute, herriko umeei espazio lagunkoi eta hezitzaile bat eskainiaz.

Bide honetatik jarraitzeko, eskolan sukaldea propioa izatea eskatzen dute, oraingoa eskola ondoan dagoen zaharren etxean dagoelako.

- (HERRIA) **Urduñako hiritarrek orain 30 urte herri-eskola sortzea lortu zuten, publikoa izango zen eskola batek soilik bermatu zezakeelako belaunaldi berrien euskalduntzea.**

Eskola komunitate osoaren konplizitatea eta auto antolakuntzari esker hezkuntza proiektua etengabe hobetzen duena, umeak erdigunean izanik. Familiak, irakaslegoa, inguru hurbila, hiria.

- (ESKOLA) **Sistema publikoaren aldeko instituzioen apustu irmoaren beharra: baliabide berrituak eta inbertsioak** beharrei erantzungo dieten baliabide eta zerbitzuak eskaintzea: azpiegitura egokiak, haurreskolerako ordutegi zabal eta malguak...

Xabat Agirrek egin du diseinua, kontzeptu horietan oinarrituta (lurra, herria, eskola, errotu).

Joera-kolore beroak erabili ditu eta forma organikoak. Hala:

- Lurra zuhaitz baten bidez irudikatzen da.
- Herria, arrosa koloreko etxe baten bidez.
- Eskola, liburuxka hori baten bidez.
- Jangelak, sagar baten bidez.
- Esfera batean barnebiltzen dira irudiak, lurra, mendiak eta zerua irudikatzen duten formekin batera.

URDUÑA HERRI ESKOLA

Urduña Herri Eskola Urduñan (Bizkaia) dagoen haur eta lehen hezkuntzako ikastetxea bakarra da. Haurraren mugimendu autonomia eta esperimentazioa du oinarri eskolak eta eremuka lan egiten du, ebaluazio hezitzailea bermatuz eta hezkuntza-komunitatearen begirada aldaketa bateratua eraikitzeko.

Eskola espazio berri naturalizatu batean kokatzen da, ekosisteman murgilduta dago eta umearen garapen prozesuan bidelagun da.

Euskara da eskolako ardatz nagusia da eta euskararekiko jarrera hobetzea eguneroko erronka. Aurrera egiteko familien partaidetza ezinbestekoa da, orain arte bezala. Jolastokia ikastokia da Urduña Herri Eskolan eta denboren naturalizazioa ere ezinbesteko ardatza da eskolan, ikasleen garapenarekiko errespetuzko begirada bultzatuz (mugimendu autonomoa, ordutegi malguak...). Teknologiaren erabilera arduratsua da plan digitalaren helburu nagusietako bat.

Urduñan [haurreskola](#) dago eta [Zaraobe Institutua](#) da Urduña Herri Eskolako ikasleak hartzen dituen ikastetxea. Amurrion kokatuta dagoen ikastetxea da, eta DBH, batxilergoa, prestakuntza-zikloak eta etengabeko prestakuntza eskaintzen ditu.

Sarean lan egiten duen eskola publikoa da Urduña Herri Eskola. Urduñako Eskolako ibilbide naturala diren haurreskola eta Zaraobe institutuaz gain, bailarako beste hainbat ikastetxe publikoekin batera sarean aritzen da, Aiaraldeako hezkuntza sarearen baitan. Sare honen helburua bailaran kalitatezko hezkuntza publikoa eskaintzea da.

GUNEAK

Aurtengo Jaiak lau gune izango ditu, eta ohiko gune ibiltaria. Jaiaren gune izango dira Urduñako honako gune hauek: Foru plaza, museoaren plaza, Gernika plaza eta, jakina, eskola.

Ekintza ibiltariez gain, eta horrelako ekintzak aurreikusten dira:

- Txikien eta gazteen gunea: puzgarriak, tailerrak...
- Gernika Plaza: Bazkari gunea
- Kale animazioa: Musika, kalejira, kale antzerkia, etabar.
- Foru Plaza: "Pirritx, Porrotx eta Marimotots", tailerrak...

<http://www.euskaleskolapublikoarenjaia.eus>

Informazio gehiago: Lurdes Imaz 688 689 877

2024-12-12

PRENTSA-TXOSTENA

PRESENTACIÓN DE LA 32ª EDICIÓN DE LA FIESTA DE LA ESCUELA PÚBLICA VASCA

Hoy hemos presentado en rueda de prensa la 32ª edición de la Fiesta de la Escuela Pública Vasca, que celebraremos en Orduña (Bizkaia), el 1 de junio de 2025.

Han participado Eba Colomino y Javi Ortega (AMPA), Uxue Mendibil (concejala de Educación) y Lurdes Imaz, coordinadora de EHIGE. También han estado la dirección profesorado y alumnado de la escuela, así como presentes representantes de las AMPA y las direcciones de la Escuela Pública de Aiaraldea.

La Fiesta de la Escuela Pública Vasca, que tiene como objetivo reivindicar la escuela pública como eje vertebrador del sistema educativo vasco, se celebra anualmente el primer domingo de junio desde 1994.

Además de ser el punto de encuentro de miles de personas que conformamos la comunidad de la Escuela Pública Vasca, este día busca empoderar a la Escuela Pública. Este día se ha convertido en un día propicio para dar a conocer las características propias de la Escuela Pública Vasca: la de todos y para todas, promotora del euskera y la cultura vasca, enraizada en el pueblo, basada en la participación de la comunidad educativa e innovadora.

La Fiesta de la Escuela Pública Vasca llega con fuerza a esta 32ª edición, tras recoger el testigo de Ordizia.

LOGO Y LEMA

Lurra, herria eskola ERROTU es el lema de la 32ª Fiesta de la Escuela Pública Vasca. Con este lema pretendemos reivindicar un modelo educativo público integrado en el entorno.

- (LURRA) **Escuela que pone la alimentación en el centro.** Fruto de años de trabajo, en el curso 2018-2019 se puso en marcha el proyecto piloto del comedor escolar de Orduña. Desde entonces ha sido un referente en materia de soberanía alimentaria a nivel estatal. Además, se ha reformado el patio, ofreciendo a las niñas y los niños del pueblo un espacio amigable y educativo.

Para seguir por este camino, la comunidad educativa pide que la escuela tenga cocina propia, ya que la actual cocina está en la residencia de ancianos que está al lado de la escuela.

- (HERRIA) **Las vecinas y los vecinos de Orduña hace 30 años consiguieron crear una herri-eskola, porque solo una escuela que fuera pública podía garantizar la euskaldunización de las nuevas generaciones.**

Se trata de un proyecto educativo que mejora continuamente gracias a la complicidad de toda la comunidad escolar y la autoorganización, con los niños y niñas en el centro. Familias, profesorado, entorno cercano, ciudad.

- (ESKOLA) **Es necesaria una apuesta decidida de las instituciones por el sistema público: ofrecer recursos renovados e inversiones** que respondan a las necesidades: infraestructuras adecuadas, horarios amplios y flexibles para la haurreskola, ...

El diseño lo ha realizado Xabat Agirre en base a estos conceptos. Los colores utilizados son cálidos y de tendencia, y las formas orgánicas. Así:

- La tierra se representa con un árbol.
- El pueblo, a través de una casa de color rosa.
- La escuela, mediante un libro amarillo.
- Los comedores mediante manzana.
- Las figuras se integran en una esfera junto con las formas que representan la tierra, los montes y el cielo.

URDUÑA HERRI ESKOLA

Orduña Herri Eskola es el único centro de educación infantil y primaria ubicado en la localidad vizcaína de Orduña. La escuela se basa en el movimiento autónomo y la experimentación del alumnado y trabaja por ámbitos, garantizando la evaluación educativa y construyendo un cambio de mirada conjunto de la comunidad educativa.

La escuela se sitúa en un nuevo espacio naturalizado, está inmersa en el ecosistema y acompaña a las niñas y a los niños en su proceso de desarrollo.

El euskera es el eje central de la escuela. Mejorar la actitud hacia el euskera es un reto diario y para ello la participación de las familias es imprescindible. La renaturalización de espacios (recuperar el contacto con la naturaleza, itinerarios pedagógicos...) y naturalización de tiempos son otros de los ejes principales (mirada respetuosa hacia el desarrollo del alumnado, flexibilización de horarios...). También es vital el plan digital y el uso responsable de la tecnología.

Orduña cuenta también con una [haurreskola](#). [Zaraobe Institutua](#) es el centro educativo de secundaria que acoge al alumnado de Orduña Herri Eskola. Se trata de un centro ubicado en la localidad de Amurrio y que oferta ESO, bachillerato, ciclos formativos y formación continua.

Orduña Herri Eskola es una escuela pública que trabaja en red. Además de la haurreskola y el instituto Zaraobe, que son el recorrido natural de Orduña Herri Eskola, la escuela colabora con la red educativa Aiaraldea. El objetivo de esta red es ofrecer una educación pública de calidad en el valle.

ESPACIOS

La Fiesta de este año tendrá cuatro gunes, más el habitual itinerante. Serán espacios de la Fiesta los siguientes espacios de Orduña: Plaza de los Fueros, la plaza del museo, Gernika plaza y, por supuesto, la escuela, además de las actividades itinerantes.

Organizaremos actividades de este tipo:

- Zona infantil y juvenil: hinchables, talleres...
- Gernika Plaza: Comida.
- Animación callejera: kalejiras, teatro de calle, etc.



- Plaza de los fueros: Pirritx eta Porrotx, talleres...

www.euskaleskolapublikoarenjaia.eus

Más información: Lurdes Imaz 688 689 877